

# Orreagako elizan aurkitutako On Javier Ibarraren prediku bat Artzibarko hizkeran idatzirikoa

ORREAGA IBARRA MURILLO\*

## 0. SARRERAKOAK

Artikulu honetan Javier Ibarra Murillo zenaren sermoi batzuk (Orreagako elizan idatzirikoa) aztertzen dira. Javier Ibarra artzibartarra zen. Lakaben jaio zen, *Ederrena* etxean, 1876. urteko azaroaren 26an, eta 1955eko irailaren 12an zendu zen.

Orreagako kalongea izan zen azkeneko hogeita hamahiru urteetan; baina, aurretik bertze herri hauetan egon zen. Hasieran Artzibarko herrietan: Lakaben, Muniainen, Usotzen, Arrietan (1901) eta Hiriberrin (1911-1913). Ondoren, Ultzamako Arraitz-Orkinen (1913), hurrengo urtean Erroibarko Gerrendiainen eta 1920.ean Iraizotzen. Azkenik, 1922. urtean Orreagako kalonge izendatu zuten.

Historialari autodidakta zen, zaletasun horrek bultzatua Orreagako liburutegian zeuden liburuak goitik behera miatu zituen. 1939. urtean historia irakasle izendatu zuten Orreagako kolegiatan. Liburu oso interesgarriak idatzi zituen, horien artean “Historia de Roncesvalles”, 1935. urtean argitaratua, 1.000 orrialde baino gehiago izan eta bi urtetan idatzia izan zena. Liburu hau saritua izan zen, interes handikoa baitzen. Orobat, ondoko liburuen egile dugu: *Biografía de los Ilustres Navarros*, *Historia del monasterio benedictino y de la Universidad literaria de Irache* eta *Biografía de Ilustres Navarros*, bilduma hau 4 aletan aurkeztu eta 1952-53. urteetan Iruñean argitaratua.

\* NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

Arrunt gizon ikasia zen, eruditoa, dudarik gabe, jakinduria handikoa. Ezagutu zutenek gogoratzen dute Orreagako gela hotz horietako batean, ma-haia paperez josita eta historiako liburuetan murgilduta. 79 urte zituelarik, gau batez, gela horietako leiho batetik erori eta zaurien ondorioz zendu zen.

Haren bigarren iloba naizen aldetik, pasarte hauek guztiak ezagutzen nituen, baina, ezustekoa izan da niretako euskaraz mintzo zela konturatzea. Bertze aldetik, gaur On Emilio Lintzoainek<sup>1</sup> dioen bezala, ziurtasun osoz On Javier euskaraz mintzatzen zen, bertzela ezinezkoa zatekeen apaiz izendatzea holako herri euskaldun guztietan. Gainera, On Emilio Lintzoainek –egun Orreagako Artxibategiko arduradun prestuak– ezagutu zuen eta hala berresten du. Euskara jakitearen balio gutxiak erakusten du gure bigarren osaba izan zenaren aldetiko ezjakintasun hau.

Ene aitatxi zenaren osaba zen apaiz honek ama artzibartarra zuen, Hiri-berrikoa, eta aita Lakabekoa. Artzibarko euskaraz mintzatzen zen, jakina, baina, aldi berean ez dugu ahaztu behar gizon letratua zela, euskal gramatikak ezagutzen zituena, ziurrenik. Bertzaldetik, Ultzaman eta Erroibarren egona zen, horrek adieraz dezake haren sermoien neologismoak eta ezaugarri jasoak.

## 1. EDIZIOA

On Javierrek Orreagako kolegiatan (1922 urtetik aitzinera) kalonge egon zenean burutu zituen sermoi hauek, Erroibarko erromesei zuzenduak erromerian etortzen zirenean. Orreagako artxibategian agertu dira, bere bertze eskuizkribu batzuekin batera; toki berean haren “Historia de Roncesvalles” en eskuizkribu osoa zegoen kutxa batean sarturik. Bere letrarekin idatziriko koaderno zahar batean, 15 orrialde euskaraz idatzirik tartekatzen dira, hauexek, gainerako guztiak gaztelaniaz baitira. Koadernoak bere izena darama, honenbestez ez dago zalantzarik egileari buruz. Hurrenkerari dagokionez, hasieran erdarazko sermoiak datoz, eta gero, 15. orrialdean hasten dira euskaraz idatziriko sermoi hauek. 18. orrialdea (guretzat hirugarrena) ere erdaraz idatzita dago, euskara eta erdara txandaka.

Edizioan, zenbaki bana jarri diogu orrialde bakoitzari eta orripeko oharretan jarri ditugu beharrezkoak diren oharra. Eduki aldetik, garai hortako mezua erakusten dute: Jainkoaren beldurra, infernua, bekatua, Orreagako Amabirijinari debozioa eta abar.

Erabiltzen duen hizkerari dagokioenez, argi dago ez duela herri arruntak erabiltzen duena islatzen, hasieran erran bezala apaiz erudito baten aitzinean gaude, garaiko gramatika eta argitalpenak ezagutzen zituena, ziurrenik, honenbertzez aldaera jasoak erabil zitzaizkeen. Baina, bertzaldetik, Artzibartarra bezala, herriko euskara menperatzen zuen, eta hortxe islatzen da. Artzibarko euskararen lekukotasunak urriak direnez, egoki iruditu zaigu sermoi hauek ibar horretako testigantzak osatzera etor daitezzen.

<sup>1</sup> Esker mila Orreagako Artxibategiko arduraduna den On Emilio Lintzoaini, haren prestutasun eta laguntzeko gogoarengatik.

Artzibarko bertze testuekin parekatuz gero, berehala atzematen dugu hainbat gertakari baztertu dituela Ibarrek, lanari goragoko maila ematearren.

## 2. FONETIKA-FONOLOGIA

Fonetika arloan, bokalismoarekin hasiko gara lehenik.

2.1. Bokal taldeak direla eta, *-e + a* taldeetan *ea* da nagusi; hartaz, taldea aski ongi gordetzen da hitz barnean nahiz mugatzailean: *bertzea* (15), *berean* (5), *aldarean*, *izenean* (1), *nekeak* (1), *maiteak* (2). Hala ere, kasuren batean: *ea > ia*, ahoskatzeko joera ageri da: *aidiak* (4), *adiskidiak* (4).

Era berean, *o + a* bilkuretan *oa* da nagusiki idatzita agertzen dena: *gurasoak* (2), *abueloak* (2), *remedioa* (2), *lengoak* (2), *gainerakoak* (4), *zinzoak*, *di-bersoak* (4). Kasuren batean *ua* dugu: *maiteagokua* (10). Bokal eufoniekien bukatzeko, aipatu behar da bokal harmoniarik, edo *-i* eta *-u* duten silabek mugatzailea hartzean *-a* hartzen dute gehienetan: *aundiak* (4), *guziak* (4), *erokeria* (4), *sanduak* (5), kasuren batean agertzen bada ere: *gauze* (4). Hizketa arruntean horrelako adibideak izan dira gaur arte (cf. Artola 2006: 397).

2.2. Artzibarren ohikoa denez (ondoko Erroibarren ez bezala), bokal harmonia edo *-a* mugatzailea eranstearen ondorioz *-e* bihurtzearen kasu guti dago: *orduen* (1), *dire* (2). Gainerakoetan *a* gorde da: *argia* (2), *itzak*, *maitagarria* (1), *sortuak* (12), *aundiak* (4). Ezaugarri hau orain arteko hizkeran ere islatzen da (ik. Artola 2006: 397).

2.3. Aferesi adibide guti batzuk aurkitu ditugu: *zautiko* (3) eta *yago* ditugu, baina *ezoutiko* (9). Esaterako, *etorri* aditza nagusi da, *tortzen dire* (4), baina, lerro berean, *ongi etorriak* (2). Artzibarko hizkeran txandaketa hau arrunta da.

2.4. Jakina denez, ekialdeko hizkeretan eta goinafarreraren sinkopatzera dagoen joera nabarmena da, idazki honetan horren adibide batzuk ere badira: *libru* (6), *atra* (5, 11), *pasten* (5), *zate < zarete*, *etzate < ez zarete* (2).

2.5. Kontsonanteei helduko diegu oraingoan. Sudurkariaren ondoko kontsonante herskariak, orokorrean ahostunen alde neutralizatzen dira, erronkarietaz eta zubereraz izan ezik, gainerako guztietan. Halarik ere, goinafarrera hegoaldekoan *-nt-* taldeak ugariak izaten dira. Izkribu hauetan, ordea, *-nd-* da nagusi gaztelaniaz nahiz latinez eratorriko mailegu batzuetan, ohikoa den bezala erlijioiko hitz hauetan: *borondate* (6), *sandu* (6), *manamenduak* (4). Erroibarko bertze dotrinetan ere antzekoak ditugu (cf. Ibarra 1997: 271). Bereziagoa da *kondatu* forma: *condatzen diguna* (6).

2.6. Errotazismoari dagokionez, *-rtz-* taldea da espero dena, eta horixe erakusten dute adibideek: *ainbertzeko*, *bertze*, *erran* (2).

2.7. Palatalizazioari dagokionez, badira adibide despalatalizatu batzuk, ohiko *guti*, *gutiago* (11), baina *gutxi* (1) ere eriden dugu.

Bukaeran *i*-ren ondoan *ñ* erakusten duten adibide batzuk ditugu: *miñ* (15), *grinañak* (13), *altziña* (14), *Virgiña* (8), *iñoren* (9), *ziñez* (15), eta bertze

batzuk *-ll-*: *billatzen* (9), *billatuko* (8), *ill* (11), *illunki*, *illtzeko* (13), *eskar mille* (4), *emaillea* (4).

2.8. Erdal *-on* atzizkiaz bukatutako maileguak agertzen dira, baina, baita bertzelakoak ere: *procesiona eta procesioa* (2), *gure patroia* (2). *Au* taldea dugu *kristau* hitzean, ez *kristio*. Eta sudurkarien sailarekin segitzeko, Erroibarren eta Artzibarren gertatu ohi den bezala,  $n > \emptyset$  bihurtzen da, *orai* hitzean, horixe baita ahozko eta idatzizko forma arrunta.

2.9. Txistukarien sailean, hitz hasieran *x-* ageri da: *xoratuenik zaudelaik* (7) ohikoa den bezala, Arrietan antzeko adibideak (*gaixki*, *gaixto*, *naix*) aurkitu zituen Artolak, alegia, *z-*ren ordez *x* zutenak, hitz hasieran nahiz tartean.

2.10. Zenbatzaileetan *laur* arkaismoa ageri da: *laur egun urte* (2), ekialdeko hizkeretan agertzen den bezala.

2.11. Bertzaldetik, ez dago Artzibarko Arrietan eta Erroibarren hain arrunta den metatesia *-t(z)en + edun-*ez eratorriko adizkietan: *ineunt*, *ekar-tzeunt* gisakoak ez dira ageri.

### 3. IZENAREN MORFOLOGIA

3.1. Lehen graduko erakusle singularrak *g-* protetikoa eraman ohi du. Goi-nafarrera mendebaldekoraino hedatu da ezaugarri hau eta Artzibarren ondoko Erroibarren baino ugariagoa izan da. Hartaz, *gau* eta *goi* eta gainera-koak aurkituko ditugu: *miretsi harrigarri gau* (8), *ama eder gau itzalean* (1), *gorpuz ustel gaugatik* (5), *egui gau* (6), *arrigarri gau* (7), *aurtxo goy* (7). Baina, ez da sistematikoa joera hau, *g-* gabekoak ere baititugu: *gauza zirzil ayengatik* (5), *graziau* (4).

Bertzaldetik, *haren/ beren* bikotean, *haren* da nagusitzen dena: *zalui aren arima berpiztekoa* (7), *mundu ontaik atratzen delaik* (10).

Izenordeen artean *ziek* (zuek) forma nabarmendu behar da, agian *-zie* morfemaren analogiaz sortua.

3.2. Bertzaldetik, lehen graduko erakusle plurala eta bere deklinatuak, *ebek* (10), *eben* (2) dira, ondoko Erroibarren bezala. Eta izenordeen sailean, pluraleko bigarren pertsonarena *ziek* (4) da.

3.3. Izenaren morfologia sailean, lehenik aipatu behar da *-a* organikoa ez dela erabiltzen: *gauz*, *anay* (1).

3.4. Deklinabidearekin hasiko gara oraingoan. Kasu ablatiboan *-tarik > -taik* da nagusi ekialdean eta goi-nafarreran bezala: *mundu ontaik* (11), *beiratzzen dizutentaik* (13), *egunero toki ortaik* (1), *ezauden dutentaik* (13).

3.5. Kasu destinatiboan *-dako* morfema, goi-nafarreran ohikoa dena nagusitzen da: *profetendako* (6), *bekatariaindako* (8), *ortako* (12).

3.6. Singularreko deklinabidean *-aikin*, *-aindako* eta *-ain* dira ohiko bukaerak singularrean ahozko solasean, eta horrelaxe islatzen da idatzizkoan ere. Sozietiborako morfema singularrean *-aikin* da, Erroibarren eta Artzibarren

arrunta dena: *bere aurrea* (7), *bildur ikaragarria* (13), *ederra* (11), *bera* (11), *aurrea* (7), *bekataria* (9), *asmoa* (9).

3.7. Era berean, genitibo singularra daukaten morfemek *-aindako* dute, ahozko hizkeran bezala: *bekataria* (8), *tximista* (15), *gureta* (11). Kasu genitibo singularrean bada adibideren bat: *amain lagundu gabe utzi* (12), hau da Esteribar eta Artzibarko hizkeraren ezaugarri ohikoa, baina, idatzizko testuetan kasuetan *-aren* agertzea, alegia, aldaera osotua, ez da harriarria: *jaunaren graciren* (4), *lagunaren* (10).

3.8. Posposizioen artean, hemengo ohiko forma den *ertean* agertzen da: *su eta garren ertean* (14).

3.9. Deklinabidearekin segituz, *-raño* morfema erabiltzen da denbora markatzeko ere: *azken orduraño* (12), *me egundaño* (12), Erroibarko testuetan agertu bezala.

3.10. Kasu ablatiboan, *-ganik* morfema da erabiltzen dena bizidunekin: *Ama Virgiñaren ganik eskatu bear dituzien eskerrak*, *Jaunarenganik seme bat* (8). Baina, noiztik adierazten den batean, *txiki-txikitik* (6) dugu, ez \**txiki-txikitandik*.

Eta bukatzeko, partizipioan *-rik* morfema da nagusitzen dena, ohikoa den bezala goi-nafarreran: *zikindurik*, *erabakirik* (5), *zaticaturik*, *itzalirik* (13). Hala ere, ez da forma eskusiboa: *ongi etorriak* baitago (2).

#### 4. ADITZAREN MORFOLOGIA

4.1. Nork sailean ezaugarri hauek suertatzen dira aipagarri: pluraleko bigarren pertsonak *-zie* morfema hartzen du, goi-nafarrera hegoaldekoan eta iparraldekoaren zati handian bezala: *erraten diziela* (2), *atsartu zazie* (1), *eskatu bear duziena* (4), *erakutsi dizien bidetik* (2), *eska dezazie* (4), *eskatu bear dituzien eskerrak* (4). Lehen pertsonaren morfema (nori) denean *-r-* da: *nola neri maitatu dirazun* (12).

4.2. *Edun* aditzaren lehenengo pertsonaren adizkia *-zu* da hasierako *du*-falta duelarrik: *ill bear zu* (5). Bertzaldetik, *-zute* da *zuek*-i dagokion morfema: *Zer gertatuko zaizute* (13).

4.3. Nork sailean, lehenengo pertsonaren nori morfema *-t-* da, eta erlatiboazko *-n-*arekin lotzean *dutena* (ez *dudana*) egiten du: *nai dutena nik da nire naikeriak betitu* (9). Baina Nork-Nori-Nor sisteman, *-r-* morfema ohikoa hizkera honetan ageri da: *maitatu dirazun* (12), Erroibarren eta Artzibarren bezala.

4.4. Nor-Nori aditzetan lehen pertsonan *zait* eta *zaida* agertzen dira txandaketan: *iduritzen zaida* (2), *eder zait* (2).

4.5. Bertzaldetik, adizki laburtuak (hemen arruntak direnak) ohikoak dira: *nauziena* ‘nahi duziena’ (4). Bertzaldetik, Nor sailean, *zarete* > *zate* dugu Erroibarren eta Artzibarren bezala: *etzate zuek* (2), *zate ta ayek bezala* (2), *sartuko zate* (15), *etorri zatenak* (1).

4.6. Geroaldian *-en* morfema nagusi da *-n-z* bukatu-rikoko aditzetan, goi-nafarreran ohikoa den bezala: *izain du* (4), *izan dela* (8), *ezta Ama Virgiñak izain* (9), *egoin bearko zerate* (14), *izain du gauz izugarria* (5), *errain* (5), baina, *emanen* (4).

4.7. *-tu* bukaerako partizipioek geroaldia irudikatze-ko *-ko* atzizkia hartzean, GN-an bezala *-tiko* egiten dute: *zautiko*, *ezoutiko* (8).

4.8. *-ki* aditz morfema agertzen da esaldi batean, nahiz berezia den eta ez den argi ikusten esanahia: *euskeki* (7).

4.9. Aginteran eta ahaleran aditz oina ez da beti erabiltzen: *utzi dezan* (9), *zer esperatu diroke* (8).

4.10. Nork-Nori-Nor aditz sisteman ez dago 3. pertsonan Erroibarren eta Artzibarren agertzen den *-ako-*, *-akote-* morfemarik: *eskatuko diote* (10), *miñ egiten diotenak* (14), *artu zion* (7), *billatuko dio* (8). Alde honetatik ez datoz bat Artolak Arrietan bildutakoekin (2006: 401), ikertzaile honek *dakot*, *dakok*, *neko*, *zeko*, *zekote* biltzen baititu. Dударик gabe, Ibarrek ezagutzen zituen aldaera horiek, baina erregistro arduragabekotzat izango zituen, eta ez zuen erabili nahi izango. Ohar bedi Urizko dotrinan ez dagoela horrelakorik, litekeena da aldaera hauek (Camino 2003b: 142), Yrizarrek pentsatu bezala, berrikuntzak izatea, bai eta aldaera arduragabeak ere.

Nor-Nork aditz sistema ezagutzen zuela badakigu, honako adibideetan agertzen baita: *maiteki beira nazuzu* (13), *iduki nezazu tentazioan erori gabe* (13), *leunki aitu nezazu* (13), *ez nazuzu... bakarrik utzi* (14), *lagundu nezazu!* (14), *ontan lagundu zaizake* (6). Hala ere, kasu batzuetan Nor-Nori-Nork nagusitzen da: *ernarazten dizulaik* (6), *artzak aurtxo goy eta eman zio bere amai: Artu zion mazteki bere altzoan amak eta anche iltzen* (7).

Gisa berean, *maite izan* aditzarekin beti Nork-Nori-Nor sistema erabiltzen du: *bere semeari bezala maitatzen digu* (12), *nola neri maitatu dirazun* (12), *zinez maitatzen diotenak* (14).

4.11. Artzibarren ohikoa den Nor-Nori adizkiaren 3. pertsonaren lehen aldia *-ki* morfema agertzen da kasu batean, ez *-tza*: *etorri zekion* (7). Egun subjuntiborako hedatuxea dagoen forma dugu hau, Nafarroako Sakanan eta baita Ultzaman eta ondoko Erroibarko Lintzoainen ere, nahiz txandaketan agertzen diren.

4.12. Bertzaldetik, GN-n eta Baztango hizkeran bezala, ez da agertzen Nori-ren komunztadurik datibo kasuan: *eztu beñere bere semari utziten* (10), *jarraikatzen ari zelaik Herodes, beraikin joan zen Egiptora* (11), *eta nola izan daiteke atzendu edo utzi dezan Ama bat bere umeai* (9), *eta nola izan diteke Ama bat bere umeia utzi dezan aren lagunaren yago bear duen orduan* (9), *eztu beñere bere semeari utziten* (10), *Eta ala ere pekatu egiten duzu ari errazki* (5). Artzibarko Arrietan antzeko adibideak biltzen ditu Artolak (2006: 401).

4.13. Nabarmenezkoa da ahaleraren ekialdeko forma hau: *zer esperatu diroke* (8). Ahalezkoetako *-iro-* erroa izan zen Bonapartek erabilitako irizpide bat isoglosak ezartzeko. Ez dakigu egitura ikasia zen ala ez On Javierrendako. Izan ere Erroibarko dotrinan (ik. Ibarra 1997: 277), egitura berbera agertzen da. Dena den, hego-nafarreran oso zabaldua egon da, Elkanoko Lizarragak, Beriainek, Erroibarko eta Aezkoako XIX. mendeko kristau ikasbideetan badi-

ra adibideak, eta nafar ekialdeko euskalkietan ere bai Zaraitzu, Erronkariko eta Zuberoako euskaran (ik. Camino 2003: 448).

4.14. Aditzen erregistroei dagokienez, aipagarria da hiketako formen agerpena, kasu honetan bezala: *artzak aurtxo goi eta eman ziook bere amai!* (7), honek adieraziko luke erregistro honen bizitasuna.

4.15. Aditz erroa nagusi da aginterazko nahiz subjuntiboazko aditzetan: *eska dizien* (2), *eska dezazue* (4), *eska diezaiegun* (6), *beida zala* (8), anitzetan erabiltzen da, baina ez beti, bai baititugu bertzelako adibideak ere: *zer esperatu diroke* (8).

## 5. LEXIKOA

Alor ezberdinak suertatzen dira aipagarri lexiko atalean. Alde batetik, izkribu honetan hemengo ohiko lexiko arrunta ageri da, jarraian zerrendatzen duguna: *aiseak* (4), *alqui* (2), *altziña* (14), *angabetu* ‘afligirse, desfallecer’ (13), *arrankure* ‘kezka’ (9), *azkarrazi* (11), *bearriak* ‘belarriak’ (13), *done Jon Donei*, *egundaño* (12), *emazteki* (9), *emeki* (13), *erdetsi* (7), *eritasun* (7), *guatzea* (14), *iyán*, *igan* (11), *iduki* (13), *kiratsetan* (10), *koitauak* (2), *legundu* (10), *lekutu* (9), *lemixik* (2), *naikeriak* (9), *opatu* (6), *ortzi lekura* (12), *propiena* (6), *zalui* (7), *zezeldu* (13), *yago* (10).

Bertzaldetik, hitz hauetako batzuk ez dira bereziki ibar honetakoak, eta Aranak (2003) egindako Artzibarko hiztegian, esaterako, ez dira agertzen: *jarraikatu*, *bidaldi*, *koitaua*, *kirats*, *zezeldu* ‘balbuçir’ (Baztangoa), *aithonak edo abueloak* (2). Era berean, *angabetu* ‘afligirse, desfallecer’ dugu, hiztegian ez dagoena bildua, nahiz Azkuerenean AN agertzen den idatzia.

Mugatik hurbil kokatua dagoen haran honetan frantsesaren eragina agertzen da lexikoan, *arribetuko* (15) hitzean.

Artzibarko ohiko lexikoaz gain, On Javierrek bertzelako kultismoak eta Sabino Aranaren neologismoak ezagutzen zituen, esaterako, *-kun* atzizkia darramatenak: *ikurkun* ‘marca, símbolo’, *ederkun* ‘gracia, hermosura’ 1879. urtean Aranak sortua.

Era berean, lexikoan item batzuk merezi du nabarmentzea; hauetako asko jatorri ezberdinekoak, batzuk iparraldeko eragina erakusten dutenak, bertze batzuk baztanerarena, etab. Hona hemen (OEH): «*me egun* ‘abstinencia, los franceses llaman a la vigilia’, Satrg. VocP, <<Abstinencia de carnes, comida de vigilia>> VocB. *Semezatu* ‘adoptar. Tomar por hijo’». *Semetzakotu* (id., s.v.): «‘Prohijar. Se dice *semetzakotu* por prohijar a varón. Por prohijar a mujer’, *alabatzakotu*. Zam Voc. *Mirabetu* ‘servir’. (AN; V-gip, G, Lar, Añ (G))». Baita hurrengo hau ere (id.): «*naimena* (AN, L, Izt Hb) ‘Voluntad’. Documentado en Mendiburu y en autores meridionales del s. XX».

*Salsaria* (OEH, s.v.): «‘Recompensa de venta, participación’ (AN-5vill ap. Gte Erd 39; A Apend). *Sari* soilik BN-n ere erabiltzen da».

*Goraldtu* (OEH, s.v.): «(Bera) ‘alabar, ensalzar, elogiar’. (En Gte Erd 210 aparece como de uso en G-azp, tal vez difundido por vía culta)».

*Zezeldu* (OEH, s.v.): «(B, BN, Hb ap. Lh) Ref. Izeta Bhizt. Balbuçir. *Abuspekatu*: ‘postrarse, posternarse’. (Dv- > A; HcH Voc, H)».

Era berean, *-ki* atzizkiarekin osaturiko hitz berriak ditugu: *leunki aitu nezazu* (13), *ilunki* (13), *azkenki edo azken sententzia* (13), *aitu izazute maiteki* (13).

Azkenik, berak asmatutako hiztegia ere badago: *etorkizun* edo *consekuenzia* (4). Azpimarratzekoa da *Orria* toponimoa, *Orreaga*-ri izendatzeko erabiltzen duena, baina *Orreaga* eta *Orrea*-rekin txandaketan (2).

Kanpoko hitzen artean *aithona* (2) dugu, eta neologismo batzuk ere, *-lari* atzizkiarekin osatuak: *pekatulari*.

## 6. SINTAXIA

Ohikoa denez, guti dira nabarmentzekoak diren ezaugarri sintaktikoak:

6.1. Lehenengo eta behin ezaugarri hau nabarmendu nahi dugu: izen sintagmak absolutiboaren markaren ordeztu, genitiboarena eramatearena. Iparraldeko, ekialdeko eta GN hegoaldeko (Erroibar eta abar) ezaugarri hau bizirik dago izkribu hauetan, nahiz orain atzeraka doan: *jaunaren graciren iltzeko* (4), *bat bere umei utzi dezan aren lagunaren yago bear duen orduan?* (10), *amain lagundu gabe utzi* (12). Azken urte hauetako hizkeran, ordea, adibide guti aurkitu zuen Artolak: *zapatein garbitzera*, bertzerik ez. Honenbertzez, urte horietan bizirik zegoena aski ongi bildu du Ibarrek.

6.2. Denborazko esaldietan, esperatzekoa zenez, *-larik* morfema nagusitzen da: *auspekatzen delaik bat* (9), *iltzeko zegolaik gizaixoa nausia erran zion mutilai* (7).

6.3. Bertzaldetik, badira denborazko zentzua duten bertzelako esaldiak: *-rekin* morfema aditz izenari lotzean denborazko zentzua ematen dio esaldia-ri, *-nean* morfemaren parekoa bihurtuz: *nere biziak eriotza urbiltzeakin itzalirik daudelaik* (13). *Jesucristo iltzeakin uste duzie Ama Virginaren biotza ustuzela maitasunez* (12). *Nere biziak eriotza urbiltzeakin* (13).

Hala ere, esaldi konparatiboetan *nola* erabiltzen da: *maitatu dizazute nola neri maitatu dirazun* (12), eta *lagundu dizazute azken orduraño, nola neri Ama gaixoa lagundu dirazun* (12). “*X nola y*” moduko egitura hauek arruntak dira GN hegoaldekoan, eta baita Aezkoan ere (cf. Camino 2003a: 450).

6.4. Erdal *acaso*, euskal *ote* da, horrela agertzen da, aditzaren ondoan *-ta* jarriarik: *Zate ta hauek bezala?* Baina, *ote* ere aurkitu dugu: *nondik etorriko ote zayo* (5). Era berean, esaldi inbertsonalen bat badugu, *bat* sujetoarekin: *auspekatzen delaik bat* (9).

6.5. Artzibarko hizkeran bada ekialde eta goi-nafarreratzat jo dezakegun ezaugarria, alegia, izenlaguna zenbatzailearen eskuin aldera igarotzean gauzatzten dena, egitura hau osatuz, *izena + bat + atributoa*: *emazteki bat zen Jaunaren Profetendako borondate onekoa* (7). Arrietako hizkeran antzekoak testigatu zituen Artolak: *ardi bat ona* eta gisa hortakoak. (1996: 399).

Ekialdeko joera da predikatuak mugatzailearik gabe agertzea, kasu honetan bezala: *eder zait* (2).

6.6. Azkenik, aipagarri suertatzen da *ere* partikulak ezezko esaldietan sortzen dituen egitura bereziak: *Etzate zuek ez ere zuen gurasoak ez ere aithona edo abueloak leku ontara lemixik procesioa etortzera asi zireneko*.



## 7. ONDORIOAK

Artzibarko euskara ezagutzeko testu interesgarri baten aitzinean gaude. Orreagan bizi zen apaiz honek Artzibarko hizkeraren hainbat ezaugarri islatu ditu sermoi hauetan. Jakina, aldi berean, ilustratu bezala, hainbat kultismo (hiztegikoak bereziki) tartekatu ditu, bertako bertze hainbertze ezaugarriekin batera, eta ez dira guti lexiko alorrean azpimarratutakoak.

Nolanahi dela ere, guti izan direnez, Artzibarren idatzitakoak biziki interesgarri suertatzen da hizkera honetako edozein berri. Nahiz erabat toki hortako hizkera garbia ez den, Artzibarko hizkeraren ezaguera borobiltzeko lanabes egokia dugu hau.

## BIBLIOGRAFIA

- ARANA, A. (2003), *Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera*, Hiztegia, Hiria Liburuak.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-ETNOLOGIA MINTEGIA (1990), *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, 1983-90, Donostia.
- ARTOLA, K. (1992), "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (Hurbiltze saiakera)", *FLV*, 60, Iruñea.
- (2006), "Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)", *FLV*, 103, 393-429.
- CAMINO, I. (2003 a), "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV*, 94, 427-468.
- (2003 b), *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua.
- ELIZALDE, J. C. (1996), "Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Hegoaldeko goi-nafarrera, 3 Urizko dotrina", 1193-1232, Deustu.
- IBARRA, O. (1995), "Cispamplonés hizkeraren inguruan", in *ASJU*, XXIX-1, 267-318.
- (1997), "Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina", *FLV*, 75, 265-283.
- (2002), "Artzibarko etxe-izenen inguruan", in *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf p.G. De Rijk*, ASJU-ren gehigarriak, 341-366.

## ON JAVIER IBARRAREN SERMOIA

(1) *Nunc eta in hora mortis nostre. Amen.* Orai eta eriotzeko orduen. Amen. Erroibarko Ayuntamentu guztiz argia, Apez agurgarriak nire anay maite guziak Jesuscristo gure izenean. Ongi etorriak nere Kriston maite guziak leku sandu ontara ongi etorriak zuen zuen Ama maiteagarriaren Orriako Ama Virginiaren ondoan ...ez? da gutxi batzuek egoten etorri zatenak; bidaldi nekeak iraganik atsarttu zatie polliki-polliki zuen Ama edergau itzalean; Egunero toki ortaik, iduritzen zaide gal-ditzea...<sup>2</sup>.

(2) *Et in hora mortis nostra.*

Eta eriotzeko orduan, Ave Mariaren azken itzak dire Erroibarko Ayuntamentu guztiz argia Apez Agurgarriak. Nere anay maiteak Jesukristoren izenean.

Ongi etorriak Erroibartarrak, ongi etorriak Orreagako Ama Virginaren deitzen den iduri eder gau agertu zen leku sandu ontara gure patroï edo pozkarri beti izateko. Etzate zuek ez ere zuen gurasoak ez ere aithona edo abueloak leku ontara lemix procesioa etortzera asi zirenako. Bizi zirenak zuen Vallean oray du laur egun urte etortzen ziren zuek bezala procesiona Orreako Ama Virginia agurtzera beren bearrak Ama maite onei agertzera eta eben remedioa eskatzera: eder zait Erroibartar maiteak eder zait lengoak erakutsi dizien bidetik joan zaizten, koitauak? Zate ta ayeek bezala.

Iduritzen zaida urrikaltasunean alqui ortik Ama Virginiak nik erranak erraten dizela, ongi etorriak ere

(3) *Bien venidos seais hijos de Valderro, bien venidos en este lugar en esta hermosa imagen en la Edad Media para ser nuestra patrona a Consoladora, bien venidos vosotros, del siglo 16, que solian venir como vosotros a rendir su homenaje y culto a estar venerando imagen de María! Pero que extraño es que los habitantes de toda ella sigan viniendo aquí a saludar, visitar y manifestar sus necesidades, tribulaciones y ... a la Virgen, desde que aapreció la imagen si primeramente apareció para ser Madre Nuestra, Abogada, Consoladora Libertadora, muy bien me parece que sigáis su senda de vuestros antepasados instauraron a fuerza de ... junto ellos; parece oír como Nuestra Patrona Señora desde ese trono de misericordia os habla y os dice lo mismo que bienvenidos seais Hijos míos, bien servidos vosotros, que siquiera una vez en el año venis a ¿y a pedirle consuelo en vuestra amargura*

(4) *pues muchos otros ni siquiera eso hacen.*

Eskar mille zuei; ziek nauziena eska dezazie; on guzien emaillea, esker guzien edukitzalle, egin dira; baña lenbiziko eskatu bear duziena, zuen arimak zeruarteko edo...izan bear da, gainerakoak gañera emanen dizu Jaunak; zuen griñak edo garaitzeko, Manamenduak betetzeko edo gaintzeko azken ordurako zinzoak eta Jaunaren graziau irauteko eskerrak eta Ama Virginiaren ganik eskatu bear dituzien eskerak; (Badakizue kristau maiteak)<sup>3</sup> eriotze on bat edo Jaunaren graciren!! iltzeko.

Au da Criston maitea esker aundia zergatik eriotze on eta gaito batetik etorkizun edo consecuencia aundiak olatorterten (sic)dire. Zer da iltzea? Oh gauz izugarria! Da emengo guziak uztea; aidiak, adiskidiak, aberastasunak, aiseak atsegin edo plazerak, diversioak, itz batean emengo gauze guziak! Ze erokeria izain du ba mundu ongatik ainbertzeko eraingo??

(5) gorpuz ustel gaugatik ainbestekoak bildu! Zer astokeria zerurako eginak izan ginduinak au atzendu gauze zirzil ayengatik. Bay ill bear zu ni bésala eta orañeko gizon guziak bezala. *Day statutun est hominibus semel mori!* othe dago erabakirik Eta

<sup>2</sup> bertan mozten da, nahiz tokian baduen segitzeko.

<sup>3</sup> Ezabatua agertzen da.

noiz? ¡Oh! Ori eztakigu; izanen da aurten;...aste ontan...gau edo egun berean? Ongi izan diteke; baña eztakigu. Eta badakizu non? izain du Eliza, zure ¿ dantzan, pekatu bide edo ocasio ehur artan? Izain du zure eriotza Jaunaren grazia edo pekatuariarena.//Eta ala ere pekatu egiten duzu ari errazki; Eta eta pasten dituen egunak illabeteak eta urteak pekatuan?// (// // hau ezabatua agertzen da) Atra bearko du zure arima mundu ontatik bakarrik eta bertze ezagutugabeko mundua batean sortuko da. Eta pozgabeko oni nondik etorriko ote zayo bear duen laguntza? ¡Oh! Cristau maiteak, lurretik? Nondik Utzi badu sekulako lurra. Nondik ba?

(6) Zerutik bakarrik, zerutik! Goratu izazu ba arima gaixoa zure begiak atsega bez pozgarriai; Ama Virginiari, onek bakarrik ordu ontan lagundu zaizake, eta adierazten dizu Eliza sanduak chiki-txikitik (sic) erakusten eta ernarazten dizulaik erre-trearen Santa Maria, Jangoikoren Ama erregutu duzun gure bekatuengatik oray eta eriotzeko orduan. Orra ba, nere kristau maiteak, gaurko goizeko nere asmoa<sup>4</sup> (1, 2, 3, 4), Ama Virginiak Sanduei eta pekatariendako dito?...eriotzeko orduan laguntzak aundia;

Baña len eska diezagun argie egui gau ongui adierazteko eta zuei ongi aitzeko Ave Maria batekin.

Testamentu zarra bere irudi eta ikurkun<sup>5</sup> (sic) guziekin Jesukristo eta Ama Virginiarekin eta gero guertatu bear izan ditekena, adierazten digu. Yrudi edo figura denen artean opatzen dituen ortarako propiena da Erregen libru laugarrena condutzen diguna. Emazteki bat zen Jaunaren Profetendako borondate onekoa.

(7) Ezkondua zen baña etzuen humerik eta profeta Eliseoaren otoizten bitartez Jaunarenganik seme bat euskeki<sup>6</sup> zuen. Aunditzen ari zen aurtxoa eta bere ederkunek bere Aita eta Amaren txoragaiza zen. Baña xoratuenik zaudelaik bere aurraikin eritasun izugarri bat eotrrri zekion aurtxo ari. Yltzeko zegolaik gizaixoa nausia erran zion mutilai; Artzak aurtxo goy eta eman zioke bere amai: Artu zion mazteki bere al-tzoan amak eta anche iltzen.

Uay eriolte itzen izan<sup>7</sup>. Beala etorri zen Profeta Eliseok eta bizpirtu zion. ¡Oh doatsua eta zorionekoa Ama Virginaren al-tzoan iltzea erdexten duena!

¡Oh seculako zori onezkoa Maria Virginaren besotan azken atsa ematen duena! ¡Zalui aren arima birpizteko da eta zeruan sartuko da! Baña ikusi dezaie Cristau maitea, nola Profeta Eliseok eztu miretsi arrigarri gau edozeñekin egiten; egiten du bakarrik

(8) Mariarekin? Egiten du (emazteki)<sup>8</sup> biotz oneko emakume orrekin; egiten du bakarrik emazteki urrikaltsu arekin. ¿Zer nai digu adierazi Escritura Sanduak onekin; nai dugu adierazi Maria Santisimak ama urrikaltsua izain dela bakarrik<sup>9</sup> arekin izan diren bere bicien biotz oneko semea bakarrik. Maria, egia da, bekatarien ater-bea da, baña ez saltzallena edo traidorena; Maria da guziendako Ama maitagarria, baña Ama onekin bere biziay seme ona eztena izan zer esperatu diroke!!

*Non introbit en eman nihil inquiratur?*? Ezta zeruan iñor sartzen zikindurik. Ama guztiz urrikalsua da Maria, baña beti Jaunaren zuzendunaren mugen barnean. Eztu beñere makurkeri bat zautiko; Jaunarenganik ezoutiko ditu graziak bekatariaindako; onei eskatuko dio Ama Virginiak maiz bere animaren *salsaria* beidazala; bere Jesús Jaungoikoari eskatuko dio itzultzeko grazia eman diziola; billatuko dio

<sup>4</sup> Zenbaki hauek azken hitz hauen gainean agertzen dira, hurrenkera egokia izateko.

<sup>5</sup> Ikurkun: OEH: Marca, símbolo Euzko-abendaen ikurkuna Euzkadi 1910, 131 (ap. NeolAG).

<sup>6</sup> Ez da ongi ikusten zer dagoen idatzia.

<sup>7</sup> Ez da argi ikusten zer dagoen idatia.

<sup>8</sup> *Emazteki* ezabatua agertzen da.

<sup>9</sup> Hitz hau ezabatua agertzen da.

(9) artzai bat ardi bidegaldu bati billatzen duen besala; baña alferrik izaten badi-re ambertzeko arrankurak, ezautzen badu bekatariak, eztut nai mirabetu Jaungoikoari naidutena nik da nere naikeriak betetu, iñoren naimena (sic) ez egin nerea baizik; onekin azken orduan Ama Virgiñak eztio exagutuko bere aurpegi maitagarriai lekutuko du bekatari onen aldetik, lagunzarik gabe utziko du.

Baña ezta Ama Virgiñak izain al Jaungaitik zuur itzuli nai duen bekatariaikin. Auspekatzen delaik bat Ama Virgiñaren oñetara bici ...aldatzeko asmoaikin; beti opatuko dio besoak zabal-zabalik, ama maite maite bat bezala.

Jesusek kalbarioan Ama Virgiñari emateko? Eman dizkigun ordutik bigiratu digu beti hume maitetxoak bezala. Ama guttiz maitagarria da, eta nola izan diteke atzendu edo utzi dezan Ama bat bere umeai. Eta nola izan diteke Ama

(10) Bat bere umei utzi dezan aren lagunaren yago bear duen orduan? Gure azken orduetan bici ontan ez al digu gure familia edo eginen ditugun adiskide maite-nak utziko eta baita ere Apeza ez al digu utziko eman gabe erreligionaren pozgarriak, elizako Sakramentuak pozgarriak; Elizako Sakramentuak gure arima gaixoa azkarrazikote bitikotasunaren bedealdi izugarri ura egiteko, arima onak eskatuko diote Jaungoigoiko maiteari gure azken atsak legundu dizagula. Eta aimbertzeko adiskide, aide eta bertze arima urrikalzuen arteari ez al da gurean egon guretako den ebek baño guttiz maiteagokua, guretako den gure Ama maitagarria, guretako den gure Ama maitagarria, eta eriotzen onaren bitartekoa deitzen dena? Bay, bay, nere egitan maiteak, an izango da Ama urrikalsua eztu beñere bere Semeari utziten eta gutiago erio-tzeko orduan. Eta mundu ontaik atratzen delaik gure anima nola utziko du bakarrik atsegabea pozgarria deitzen dena, nola utziko du bakarrik.

(11) mundu ez ezagutu artan eztuelaik ez aide ez familia ez adiskide consolatzeko ez Apèzik bizkartzeko, ez deuserik poztutzeko?

Beñere Ama Virgiñak mundu ontan zebillaik utzi zion bere Seme Jesukristo gu-re Salbazaleai. Beti izan zen arekin quiratzetan. Jarraikatzen ari zelaik Herodes, be-raikin joan zen Egiptora besoetan. Bakartasunean bizitu zelaik ogeita amar urte Na-zareten an egon zen arekin beti, Jerusalem iyan zelaik Jesukristok pasiones izugarriaren kirastasun guziak edateko bere odol guria ixurtzera, bere odol ederrei-kin gure arimak erostera, Jesusekin zegoen Kalbariora iyan zelaik Jesukristok, bere ondoan iyan zen; eta Kalbarioan egon zen guzien sanduaren azpian Semearen azken odol tantak bere biotz minberatuan artzen, an azken orduetan egon zen laguntzen eta azken ill orduan itz ez? atsak aitzen, eta azkenean gor

(12) puz sandu ura bere besotan maiteki eutsi zuen eta bertzekin ortzi lekura be-re biotza zatikaturik eman zuen.

Jesucristo illtzeaiкин uste duzie Ama Virgiñaren biotza ustu zela maitasunez?

Ez, Cristau maitiak, ez. Beti da berbera, beti dago maitasunez betea;

Bere Seme Jesukristoaren lekuan betetzen gaude Ama Virginiaren biotzan, ortako erran zion gurutzen Sandutik, Jon Donei aipatzen, or duuz Ama maitea zure Semear (eta bere Semeari bezala maitatzen digu ez ola mehe egundaño bere Semeari Amain lagundu gabe utzi; ahe atzitigu)<sup>10</sup> eta maitatu dizazute, nola neri maitatu dirazun; eta lagundu dizazute azken orduraño, nola neri Ama gaixoa lagundu dirazun.

¡Oh kristau maiteak, Ama Virgiñaren Semear, Ama Virgiñaren oñazetan sortuak, Kalvarioko egun agurgarrian semezatuak alaitu zaitze ziñez, zergatik zuen bici guziko garayetan izain

(13) duzie Ama maitagarriaren laguntza. Sortzean, semezatzen eta benedikatzeten dizie, zuen bizia irauten den bitartean laguntzen eta zaitzen dizie, baztertzen ba za-

<sup>10</sup> Ezabatua agertzen da.

te seme nasia bezala, emeki emeki eta maiteki Jaungoiko zuen Aitaren etxera itzultzen dizie. Eta illtzeko orduan, oh! Orduan! Oh Ama guztiz maitagarria. Nere biziak eriotza urbiltzeakin itzalirik daudelaik eta illunki beiratzen dizutentaik, oh! Orduan! Ama maitea maiteki beira nazuzu. Ezauten dutentaik nere ezpañak motel eta zezeltzen azken aldia zure izan ezti-etzia leunki aitu nezazu. Edekitzen direlaik nere bearriak zure Semearen erabaki azkenki edo azken sententzia aitzeko. Lagundu nezazu Nere biotza oñazi eta eriotzaren bildur ikaragarriakin nekatu eta angabetuik dagolaik. Oh Orduan. Nere ama guztiz maitagarria iduki nezazu tentazioan erori gabe! Nere adiskide eta aideak nere

(14) guatzearen inguruan negarrez azken ...aitagurean? zure urrikaltasuna eskatzen dutelaik, Oh Maria zorigaiztokoen Ama amultsoa, aitu izazute maiteki!

Atrutzen delaik gorpuz otz eta illatik nere arima gaixoa zure Semearen altziña. Ez nazuzu, Ama maite maitea, bakarrik, lagundu nezazu!

Jangoiko eta<sup>11</sup>

(15) Jaunaren orazioa iltzen bazerate zeruan sartuko zate eta betiko zori onekoak izain zerate, baña bekatu larrian iltzen bazerate, zer gertatuko zaizzute (sic)? Infernuko lezean sartuko zate eta betiko su eta betiko su eta garren ermean erretzen egoin bearko zerate.

Pekariatetan baditu Ama Virgiñak bi mota seme miñ egiten diotenak bat da ziñez maitatzen diotenak Ama Virgiñai, eta pekatutik utzi nai diotenak, baute griñak batzuetan nausitzen ditu eta bekatuan zorigaitzen erortzen dire! Eta bertzea da Ama Virgiñari agian maiz goraldue? eta erretzatu dutenak, eta Ama Virgilaren jay eta Sakramentuak ere artzen ditutenak baña ez aren maitasunez ez eta ari poztuxe naye, zergatik bat arribetuko agu? Jaunaren zuzentasunaren tximistaindakako tximistaorra izateko.

\*\*\*\*\*

Kuadernoan bi txarteltxo solte hauek ere agertu dira. Orreagako Elizan jartzen ziren oharrak ziren, elizkizunetara joaten zirenei jakinarazteko. Egun, ordea, ez dago inolako oharririk euskaraz oharrak ematen duenik.

<<Atrako diré Mezak, ongi alditen fite>>

<<Andre Mariaren aldarean celebraceko ematen diren Mezac ezditezke denac celebratu fite, eta orregatik celebratuco dire an albaditeke; edo saiseko capillan alderea>>

<sup>11</sup> Hemen mozten da sermoia, orrialdearen erdian.

## LABURPENA

*Orreagako elizan aurkitutako On Javier Ibarren prediku bat Arzibarko hizkeran idatzirikoa*

Orreagako elizan aurkituriko sermoi batzuk ekartzen ditugu. On Javier Ibarra zenak idatzirikoa (1876-1955). Apaiz artzibartar jakintsu hau Lakaben jaioa zen eta bere gurasoak ere artzibartarrak ziren, historialari autodidakta hau liburu biziki interesgarrien egilea zen. Sermoi hauek, gaztelaniaz idatzirikoa kuaderno batean tartekaturik agertzen dira eta Orreagara zihoazen erromesei predikatzen idatziak ziren. Beraietan hizkera honen ezaugarriak islatzen dira, nahiz eta kultismo batzuk ere tartekatzen diren, azken batean garaiko gramatikak ezagutuko zituen ziurraski. Prediku hauek Artzibarko hizkera hobeki ezagutzeko lagungarriak izanen zaizkigu.

## RESUMEN

*Un sermón de Don Javier Ibarra encontrado en la iglesia de Roncesvalles y escrito en la variedad dialectal del valle de Arce*

En este artículo se recogen unos sermones encontrados en la Colegiata de Roncesvalles/Orreaga, escritos por el canónigo de la misma Don Javier Ibarra (1876-1955). Este erudito (autor de varias monografías premiadas) nació, al igual que sus padres, en el valle de Arce, y, por tanto, era hablante del dialecto propio de este valle. Los sermones que aparecen intercalados entre otros escritos en castellano están dirigidos a los peregrinos que iban a Orreaga. En ellos se reflejan las características de este dialecto, aunque también se intercalan algunos cultismos, cosa normal en un autor que probablemente conocía las gramáticas de la época.

## RÉSUMÉ

*Un sermon de Javier Ibarra, trouvé dans l'église de Roncevaux et écrit dans la variété dialectale de la vallée d'Arce*

Dans cet article on recueille des sermons trouvés dans la Collégiale de Roncevaux/Orreaga, écrits par le chanoine de celle-ci, Monsieur Javier Ibarra (1876-1955). Cet auteur érudit (auteur de plusieurs monographies laurées) est né, comme ses parents, dans la vallée d'Arce, et par conséquent, il parlait le dialecte propre de cette vallée. Les sermons qui apparaissent intercalés entre d'autres écrits en espagnol s'adressent aux pèlerins qui allaient à Orreaga. On y trouve reflétées les caractéristiques de ce dialecte, bien qu'il y ait aussi certains cultismes intercalés, ce qui est normal chez un auteur qui connaissait probablement la grammaire de l'époque.

## ABSTRACT

*A sermon by Canon Javier Ibarra found in the Church of Roncesvalles and written in the dialectal variety of the Valley of Arce*

This article unites a set of sermons found in the Collegiate of Roncesvalles / Orreaga, written by the Collegiate Canon Javier Ibarra (1876-1955). Like his parents, this erudite (author of a number of prize-winning monographs) was born in the Valley of Arce and, consequently, spoke the dialect used in the valley. The sermons, which are interspersed amongst others written in Spanish, are aimed at pilgrims to Orreaga. They reflect the features of the dialect, although they are also peppered with a number of more cultured forms, only to be expected of an author probably learned in the grammar of the period.